

# SMARA

Testua: PAULA CARBALLEIRA

Irudiak: CAROLE HÉNAFF

Itzulpena: FERNANDO REY ESCALERA

Azal gogorrean egina. 15 x 23,5 cm. 64 or. 12 €.

-ISAAC DÍAZ PARDO SARIA. 2006ko LIBURU IRUDIDUN HOBERENA, AGE

-HAUTATUA THE WHITE RAVEN Sen, 2007an.

**Smara** (euskara)

ISBN 978-84-7681-728-5. Mila Gau (Kalandraka-Pamiela).

**Smara** (gaztelania)

ISBN 978-84-96388-14-7. Siete Leguas.

**Smara** (galegoa)

ISBN 978-84-8464-549-8. Sete Leguas.

**Smara** (portugesia)

ISBN 978-972-8781-77-4. Livros para Sonhar.

*Inoiz basamortura joaten bazara, bila ezazu iltze-kanelaren eta kearen usaina duen hiria, emakume urrina dariona. Izar gau ezin ederragoak ditu, harea finezko dunek tapizatuak.*

*Inoiz basamortura joaten bazara, galdetu amona Ugagoz, ile zuriko amonaz. Hura aurkitzeko zoriona baduzu, eska iezaziozu gogoan dituen istorioak kontatzeko.*

“Smara” ume batek Saharara egindako bidaia baten historia da.

Bertan, amona Ugago ezagutuko du, hots, hiria arrotz

sarkinetatik babesteko gaitasuna izan duen azti ahaltsua.

Ugagok bere herriaren istorioak kontatuko dizkio, Hodeien Seme-

alaben istorioak. Elezaharrez beteriko kulturaren erroterik,

fantasiaz eta misterioz ederturik, Paula Carballeirak

malenkoniaren aldeko apustua egin du, lirismoa lagun,

barrenetik hazten laguntzen digun tristezia goraiatzaz bezala.

Carole Hénaff-ek basamortuko herrien egiazko itxura erakusten

digu. Horretarako, *collage*-az edo zur gaineko akrilikoez

baliatzen da, eta materialen ehundura uzten du agerian.

Koloreak biziak dira, ehunei, zeramikei eta janariaren bizigarriei

hain ongi ematen dietenak. Berak bizitako esperientzia du

irudiak sortzeko oinarria, bidaia bat baino gehiago egin baititu

Marokora. Handik bueltan, marrazkiz beteriko koaderno

ederrak sortu zituen: haietan, Saharak barrenean piztu zizkion

zirrara eta errespetua islatu zituen.

Irudiek harea-itsaso batera garamatzate, zerumugarik gabeko

ikuspegira, denbora gelditu egiten den parajera. Dunak uneoro

aldatzen dira, ez dira inoiz berdinak izaten; Eguzkiaren argiak

bizia ematen die, itzal berriak sortzen, orduak pasa ahala

koloreak antzaldatzen. Eraitza lan soil baina bikaina da, ukitu

surrealista eta enigmatikoa duena.



■ Gaia: basamortua, bidaiak, elezaharrak.

■ Adin egokia: 8 urtetik aurrera.

■ Nabarmentzeko moduko datuak: “*Hasiera*” eta “*Patxiku*” obren egile bera; magia eta misterioa; basamortua: klima, landaredia, ohiturak...

## Paula Carballeira

(Fene, Coruña, 1972)

Filologia Hispanikoan lizentziaduna. 1994az geroztik, ahozko kontalaria da. Espainian, Portugalen, Brasilen eta Txilen hartu du parte, zenbait kultur programaziotan. Aktorea ere bada, Berrobambán antzerki-taldean hain zuzen; eta fikzio-saioak ere egin ditu Galiziako telebistarentzat. Zenbait liburu ditu argitaraturik: poemak eta haurrentzako literatura. Horien artean, “*Paco*” eta “*El principio*”, KALANDRAKAK argitaratuak.

## Carole Hénaff

(Frantzia, 1973)

Lehenbiziko urteak Parisen eman zituen, eta bertan ikasi zuen Filosofia, baita Antzerkiko Literatura ere. 1994an Bartzelonara aldatu zen: irudigintza ikasi zuen, arte grafikoak eta ordenagailu bidezko animazioa. 1999tik 2003ra bitartean, Peret izeneko estudioan egin zuen lan (diseinu, komunikazio eta sormen estudioa). 2004an bere estudioa sortu zuen. Bertan, publizitatea egiten du, baita liburu, aldizkari eta karteletarako irudiak ere. Bidaia-kaierak argitaratzea du beste egitekoetako bat. Bere lana Bartzelonako hainbat aretotan jarri da ikusgai.



www.kalandraka.com

comunicacion@kalandraka.com



Pamiela  
etxea

soltxate@pamiela.com